

XEDAPEN OROKORRAK

GOBERNANTZA PUBLIKO ETA AUTOGOBERNU SAILA

5401

AGINDUA, 2023ko azaroaren 14koa, Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburuarena, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko ahalordeen erregistro elektronikoa, zuzenbide publikoari lotuta dituen prozeduretarako.

Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legeak 5. artikuluan dioenez, jarduteko gaitasuna duten interesdunek aukera dute ordezkari bidez jarduteko, eta, interesdunak espresuki aurkakorik adierazi ezean, ordezkariarekin gauzatuko dira administrazio-jarduketak.

Hala, bai jarduteko gaitasuna duten pertsona fisikoek, bai pertsona juridikoek, beren estatu-tuetan aurreikusia badute, beste batzuen ordezkari gisa jardun ahal izango dute administrazio publikoen aurrean.

Zehazki, ordezkari-tza egiaztatu beharko da beste pertsona baten izenean eskaerak egiteko, erantzukizunpeko adierazpenak edo komunikazioak aurkezteko, errekurtsoak jartzeko, akzioetan atzera egiteko eta eskubideei uko egiteko. Ordezkariak, bestalde, inolako egiaztapenik gabe egin ditzake izapide hutsa diren egintza eta kudeaketak.

Prozedura izapidetzeko eskumena duen organoak, bere aldetik, administrazio-espeditentari gehitu beharko dizkio ordezkari-tzaren egiaztagiria eta ahalordeen egiaztagiriak, une horretan aitortuak dituenak. Ondorio horietarako, egiaztagiritzat joko da agiri elektronikoa bat, egiaztatzen duena zein izan den ahalordeen erregistro elektronikoa kontsultatzearen emaitza.

Ordezkari-tza ez egiaztatzeak edo nahikoa ez egiaztatzeak, gainera, ez du eragotziko dena delako egintza gauzatzat hartzea, baldin eta hamar eguneko epean ordezkari-tza egiaztatzen bada edo akatsa zuzentzen bada; izan ere, administrazio-organoa epe hori eman beharko du, edo, inguruabarrek eskatuz gero, epe luzeagoa.

Aipatutako legearen 6. artikulua ahalordeen erregistro elektronikoa arautzen ditu, zeinetan inskribatu beharko baitira, gutxienez, ahalorde orokorrak, administrazio-prozedura bateko interesdunak ordezkari baten alde apud acta ematen dituenak, ordezkariak bere izenean jardun dezan administrazio publikoen aurrean, aurrez aurre edo elektronikoki. Era berean, jasota geratu beharko da ea ahalordea askiesten den.

Halaber, martxoaren 30eko 203/2021 Errege Dekretuak, sektore publikoak bitarteko elektronikoen bidez jarduteko eta funtzionatzeko erregelamendua onesten duenak, laugarren atalean arautzen du nola egiaztatu ordezkari bidez jarduten dela.

Administrazio Elektronikoari buruzko otsailaren 21eko 21/2012 Dekretuak ordezkarien erregistroa sortu zuen, eta orain arte indarrean egon da. Dekretu hori indargabetu egin du ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuak, herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa.

Ekainaren 20ko 91/2023 Dekretuak –herritarrei arreta integral eta multikanala ematekoa eta zerbitzu publikoak bitarteko elektronikoz irispidean izatekoa– interesdunek beste pertsona batzuei beren izenean Administrazioaren aurrean jarduteko ematen dieten ordezkari-tza arautzen du, hau da, ordezkari bidez jardutea, ordezkari-tzarako gaikuntzaren figura, funtsean kudeaketa-jarduerak modu jarraituan eta profesionalean egiteko pentsatua; eta ahalordetzeen erregistro elektronikoa.

91/2023 Dekretuaren azken xedapenetako lehenengoak ezartzen duenez, dekretua indarrean jarri eta sei hilabeteko epean, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean herritarren arretarako eskumena duen organoak agindu bidez arautuko ditu ahalorde-emateak, horiek akreditatzeko moduak, ahalordeen aldaketak eta errebokatzeak eta ahalordeen erregistro elektronikoko ongi funtzionatzeko beharrezkoak diren gainerako alderdiak.

Beharrezkoa da, beraz, Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuaren 2012ko abenduaren 14ko Agindua eguneratzea, zeinaren bidez arautzen baita Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Ordezkarien Erregistro Elektronikoa, eta funtzionario gaituen erregistroa sortzen eta arautzen baita, arau hauetara egokitu dadin:

- 39/2015 Legea.
- 91/2023 Dekretua.
- 203/2021 Errege Dekretua.

Horretarako, agindu honen bidez, alderdi eta figura hauek arautzen dira:

- Xedapen orokorrak.
- Borondatezko ahalordetzeak:
 - apud acta borondatezko ahalordetzeak.
 - Agiri publiko bidez edo notarioak legitimatutako sinaduradun agiri pribatu bidez emandako borondatezko ahalordetzeak.
- Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko ahalordeen erregistro elektronikoko gainerako ordezkariak, Zuzenbide Publikoari lotuta dituen prozeduretarako dauzkanak:
 - Legezko ordezkariak.
 - Pertsona baimenduaren ordezkariak.
 - Erakunde gaituak.

Ahalordeen erregistro elektronikoa bakarria izango da Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publiko osorako, Zuzenbide Publikoari lotuta dituen prozeduretan. Bestalde, 2022ko apirilaren 13ko Aginduaren bidez, Gaitutako Funtzionarioen Erregistroa arautu zen. Erregistro hori arduratzen da, erabakitzen diren zerbitzuetan edo prozeduretan, kopia autentikoak emateaz eta interesdunen identifikazioaz edo sinadura elektronikoz.

Agindu hau bat dator 39/2015 Legearen 129. artikuluko erregulazio onaren printzipioekin. Hala, arauak bete egiten ditu premia-, efikazia-, eta proportzionaltasun-printzipioak, segurtasun juridikoarena eta gardentasun- eta efizientzia-printzipioak.

Hura idazteko, Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren uztailaren 28ko 78/2023 Ebazpenari jarraitu zaio. Ebazpen horren bidez, lege-proiektuak, dekretuak, aginduak eta ebazpenak egiteko jarraibideak onartzen dituen erabakia argitaratzea xedatzen da.

Era berean, bete egin da Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurari buruzko ekainaren 30eko 6/2022 Legeak ezartzen duen prozedura eta dagozkion nahitaezko txostenak egin dira.

Hori dela eta, bat etorriaz Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioako sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta haien egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuaren 7.1 artikulua (e), f) eta m) apartatuek emandako eskumenekin, eta Gobernantza Publiko eta Autogobernu Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen urtarrilaren 19ko 8/2021 Dekretuaren 3. artikuluari loturik,

XEDATZEN DUT:

I. KAPITULUA

XEDAPEN OROKORRAK

1. artikulua.– Xedea.

1.– Aginduak arautzen du zer funtzionamendu-betekizun eta -baldintza bete behar dituen Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko ahalordeen erregistro elektronikoak bere prozedu-retain, prozedura horiek zuzenbide publikoari lotuta daudenean.

2.– Agindu honetan, erregistro esango zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publiko ahalordeen erregistro elektronikoari zuzenbide publikoari lotuta dituen prozeduretan.

3.– Zuzenbide publikoari lotuta dituen prozeduretan, Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko ahalordeen erregistro elektronikoa ez da erregistro publikoa.

2. artikulua.– Aplikazio-eremua.

1.– Agindu hau honako hauei aplikatuko zaie:

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorra.

b) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Instituzionala. Administrazio instituzional hori osatzen dute: zuzenbide pribatuko organismo autonomoak eta erakunde publikoak, ahalordeen erregistro elektronikorik ez dutenak zuzenbide publikoari lotutako prozeduretarako. Gaur egun dauden organismo autonomoak eta zuzenbide pribatuko erakunde publikoak, eta dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera eratzen direnak.

c) Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko ente instrumentalak, barne harturik hala gaur egun dauden sozietate publikoak eta haien fundazio eta partzuergoak nola dekretu hau indarrean jartzen denetik aurrera eratzen direnak, zuzenbide publikoari lotuta dituzten prozeduretan.

d) Administrazio-agintaritza independenteak, Euskal Sektore Publikoari buruzko maiatzaren 12ko 3/2022 Legearen 10. artikuluan arautzen direnak eta agintaritza horietako bakoitzaren sorrera-legean arautzen direnak, zuzenbide publikoari lotuta dituzten prozeduretan.

e) Nortasun juridikorik gabeko enteak, pertsona juridikoak eta pertsona fisikoak, aurreko apartatuetan adierazitako erakundeekin dituzten harremanetan.

2.– Agindu honen ondorioetarako, *Administrazio* terminoak artikuluko honetako 1. paragrafoko a), b), c) eta d) apartatuetan adierazten diren organoak eta entitateak biltzen ditu.

3.– Agindu honen ondorioetarako, pertsonatzat joko dira artikuluko honetako 1. paragrafoko e) apartatuan aipatzen direnak.

4.– Agindu honen ondorioetarako, honela ulertu behar dira honako hauek:

- a) «Ahalorde-emaile»: bere ordezkari besterik ematen dion pertsona.
- b) «Ahalordedun»: beste norbait ordezkatzeko duen pertsona.
- c) «Ahalordetze»: pertsona batek beste norbait ordezkatzeko.

5.– Agindu honen ondorioetarako, ulertuko da funtzionarioei egiten zaien aipamen orok barnean hartzen dituela karrerako eta bitarteko funtzionarioak.

3. artikulua.– Organo eskudunak.

1.– Zuzenbide publikoari lotuta dituen prozeduretan, herritarrentzako arretaren eta zerbitzu digitalen arloko eskumena duen organoak kudeatuko du Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko ahalordeen erregistro elektronikoa.

2.– Herritarrentzako arretaren eta zerbitzu digitalen arloko eskumena duen organoak, gutxienez, eginkizun hauek izango ditu:

a) Kudeatzea ahalordeen erregistro elektronikoen euskarri den aplikazio informatikoa, eta haren mantentze-lan ebolutiboak egitea.

b) Kudeatzea zer baimen- eta profil-mota duten aplikazioko erabiltzaileek.

c) Onartzea zer ahalordetze-eredu inskriba daitekeen.

d) Ahalordeen erregistro elektronikoen arloan laguntzea.

e) Inskribatze-, aldatze-, ezerezte edo ukatze-espeditak izapidetzea, erregistratzea, ixtea eta artxibatzea; horretarako, egiaztatuko da zer dokumentazio aurkezten den, notario-ahalordeak barne, halakorik aurkezten bada.

3.– Ordezkaritzaren xede diren izapideak egiteko eskumena duten organoek egiaztatu beharko dute ea egokiak diren inskribatzen diren ordezkariak.

4. artikulua.– Ahalordeen erregistro elektronikoen irismena.

1.– Ahalordeen erregistro elektronikoa zerbitzu elektronikoa arruntetako bat da, euskarria ematen diona Euskal Autonomia Erkidegoko Sektore Publikoko ordezkari-figuri, zuzenbide publikoarekin lotuta dituzten prozeduretan.

2.– Ordezkatu ahal izango dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko Zerbitzu eta Prozedura Katalogoan jasotako zerbitzuak eta prozedurak, edozein delarik haien digitalizazio-maila.

3.– Herritarren arretaren eta zerbitzu digitalen arloko organo eskuduneko titullarrak, ebazpen bidez, baimena eman ahal izango die beste administrazio batzuei ahalordeen erregistro elektronikoko zerbitzuak eta azpiegiturak erabil ditzaten.

5. artikulua.– Ahalordeen erregistro elektronikoen elkarreragingarritasuna.

1.– Ahalordeen erregistro elektronikoa guztiz elkarreragingarria izango da gainerako administrazio publikoek dituzten erregistro baliokideekin. Interkonexioa eta bateragarritasun informatikoa bermatuko dira, eta errespetatuko dira hala urtarrilaren 8ko 4/2010 Errege Dekretua, zeinaren bidez arautzen baita Segurtasun Eskema Nazionala Administrazio Elektronikoen esparruan nola Elkarreragingarritasunari buruzko Arau Teknikoak.

2.– Ahalordeen erregistro elektronikoaren bidez, egiaztatu ahal izango da nork ordezkatzeko duen nor administrazio publikoaren aurrean hirugarren baten izenean jarduten denean; horretarako, kontsultak egingo zaizkie antzeko beste administrazio-erregistro batzuei, hala nola a) merkataritza-erregistroari, b) jabetza-erregistroari eta c) notario-protokoloari.

3.– Ordezkaritza-ahalordea inskribatzeko, errebokatze, luzatzeko edo uko egiteko eskaerak edozein erregistrotara zuzendu ahal izango dira. Ordezkaritza-ahalorde hori, berriz, inskribatuta geratuko da ahalordeak ondorioak dituen administrazio edo erakundeko erregistroan.

6. artikulua.– Ahalordetzeak eta ordezkari-figurak.

1.– Ahalordetze eta ordezkari-figura hauek inskribatu ahalko dira ahalordeen erregistro elektronikoan:

a) Borondatezko ahalordetzeak: apud acta borondatezko ahalordetzeak eta agiri publiko bidez edo notarioak legitimatutako sinaduradun agiri pribatu bidez emandako borondatezko ahalordetzeak.

b) Beste ordezkari-figura batzuk: legezko ordezkariak, pertsona baimenduaren ordezkariak eta entitate gaituak.

2.– Borondatezko ahalordetzeak hirugarren pertsonari ematen zaizkienak dira, administrazio-prozedura batean interesdun denak ahalordedun baten alde, haren izenean jarduteko.

3.– Ahalordeen erregistro elektronikoan inskribatzen diren borondatezko ahalordetzeek bat etorri beharko dute hiru tipologia hauetakoren batekin:

a) Ahalorde orokor bat, ahalordedunak ahalorde-emailearen izenean jardun ahal izan dezan edozein administrazio-jarduketatan eta edozein administrazioren aurrean.

b) Ahalorde bat, ahalmena ematen duena ahalorde-emailearen izenean jardun ahal izateko edozein jarduketatan Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko sektore publikoaren aurrean, hark zuzenbide publikoari lotuta dituen prozeduretan.

c) Ahalorde bat, ahalordedunak ahalorde-emailearen izenean jardun ahal izan dezan Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoaren aurrean, hark zuzenbide publikoari lotuta dituen prozeduretan, prozedura batean edo batzuetan, edo, hala badagokio, jarduketa-alor batean edo batzuetan, zeinak ahalordean zehaztuko baitira, soilik jarduketa edo izapide jakin batzuk egiteko.

7. artikulua.– Ahalordeen erregistro elektronikoko inskripzioen edukia.

1.– Ahalordeen erregistro elektronikoan egiten diren inskripzioek, gutxienez, informazio hau jasoko dute:

a) Ahalorde-emailearen edo ordezkariaren kasuan:

1.a Pertsona fisikoa bada: izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionala (NAN) edo atzeritarraren identifikazio-zenbakia (AIZ) eta sexua.

2.a Pertsona juridikoa bada: sozietate-izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) edo agiri baliokidea.

b) Ahalordedunaren, ordezkariaren eta, hala badagokio, baimenduaren kasuan:

1.a Pertsona fisikoa bada: izen-abizenak eta nortasun-agiri nazionala (NAN) edo atzeritarraren identifikazio-zenbakia (AIZ) eta sexua.

2.a Pertsona juridikoa bada: sozietate-izena eta identifikazio fiskaleko zenbakia (IFZ) edo agiri baliokidea.

- c) Zein den ahalordearen, ordezkartzaren eta baimenaren indarraldia.
- d) Zer datatan eman den ahalordea.
- e) Zein den erregistro-zenbakia eta zer datatan inskribatu zen erregistroan.
- f) Zein diren harremanetarako datuak.
- g) Zer tipologiatako ahalordea den.

2.– Ahalordedun gisa diharduena pertsona juridikoa denean, erantzukizunez deklaratu beharko du ezen pertsona juridikoaren estatutuek aukera ematen dutela hirugarrenak ordezkatzeko administrazio publikoen aurrean.

3.– Erregistroari emandako datuak egiaztatzeke, elkarreragingarritasunean oinarritutako kontsulta automatizatua egingo da, Datu Pertsonalak Babesteko eta Eskubide Digitalak Bermatzeko abenduaren 5eko 3/2018 Lege Organikoaren zortzigarren xedapen gehigarriaren arabera.

8. artikulua.– Ahalordeen erregistro elektronikora sartzea.

1.– Ahalordeen erregistro elektronikora sartzeko, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko egoitza elektronikora jo beharko da (<https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa>).

2.– Ahalordeen erregistro elektronikora sartu eta ahalordeak inskribatzeko, aldatzeko edo ezeztatzeko, herritarrek beti erabili beharko dute ziurtagiri elektronikoa kualifikatua.

Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren sinadura elektronikorako politikak zehaztuko du nola erabiliko diren identifikatzeko eta autentifikatzeko bitartekoak, betiere Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren segurtasun-sistemen esparruan.

3.– Erregistrora sartzeko, langile publikoek egiaztatu egin beharko dute erregistrora sartu behar dutela beren eginkizunak betetzeko; horretarako, erregistro-kudeaketaren arloko organo eskudunaren baimen espresua izan beharko dute. Organo horrek ezarriko du zer erabiltzaile-profil behar diren, erantzukizunen eta egin beharreko lan zehatzen arabera.

9. artikulua.– Ahalordeen erregistro elektronikoa kontsultatzea.

Ahalordeen erregistro elektronikoa publikoa ez denez, pertsona eta organo hauek soilik kontsultatu eta eskuratu ahal izango dute ahalordeei buruzko informazioa (kasuan kasu, elektronikoki edo aurrez aurre):

a) Interesdunak, behar bezala identifikatuta: ahalorde-emaileak, ahalordedunak, legezko ordezkariak, pertsona baimenduak, entitate gaituak.

b) Herritarrentzako arretaren eta zerbitzu digitalen arloan eskumena duten organoak.

c) Ordezkatzen den prozedurako organo eskudunak.

10. artikulua.– Ahalordetzeak eta ordezkartzak ofizioz ezerezteak.

1.– Herritarrei arreta emateko ardura duen unitateak ofizioz ezereztuko ditu ahalordetzeak eta ordezkartzak, honako kasu hauetan:

a) Ordezkarria, ahalorde-emailea edo baimendua hiltzen denean (jasota geratu behar da inguruabar hori).

b) Ordez kariaren, ahalorde-emailearen edo baimenduaren nortasuna azkentzen denean (jasota geratu behar da inguruabar hori).

c) Arrazoizko zalantzak daudenean ahalordeen, ordezkartzen eta baimenen indarraldiari edo baliozkotasunari buruz.

d) Ordezkartzen edo baimenaren eraginkortasunik eza ekar dezaketen beste inguruabar batzuk gertatzen direnean.

2.– Honako kasu hauetan ezereztuko dira ahalordeen erregistro elektronikokoan inskribatutako ahalordetzeak eta ordezkartzak:

a) Indarraldia amaitzen denean.

b) Zehaztutako gehieneko balio-epea igarotzen denean.

c) Kasuan-kasuan, ahaldunak, legezko ordezkariak edo baimenduak ahalordea onartu behar badute eta ez badute egiten erregistroan inskribatzen denetik 20 egun balioduneko epean.

3.– Ezerezteak ahalordeen erregistro elektronikokoan sartu eta berehala izango ditu ondorioak.

11. artikulua.– Datu pertsonalak babestea.

1.– Datu pertsonalak tratatzeko orduan, datu pertsonalak babesteari buruzko egungo araudia bete beharko da:

a) Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2016/679 (EB) Erregelamendua, 2016ko apirilaren 27koa, datu pertsonalen tratamenduari dagokionez pertsona fisikoen babesari eta datu horien zirkulazio askeari buruzkoa.

b) 3/2018 Lege Organikoa, abenduaren 5ekoa, Datu Pertsonalak Babesteari eta Eskubide Digitalak Bermatzeari buruzkoa.

Arau bi horietan ezarritakoa betetzeko, ahalorde-emailea edo ahalordeduna pertsona fisikoa denean, Erregelamenduaren 6.1. e) artikulua oinarrian erabakiko da zer tratamendu baimendu erabili behar den datuak tratatzeko eta ahalordeen erregistro elektronikokoak egokiro funtziona dezan.

2.– Web-helbide honetan jaso eta argitaratzen da zer jarduera erregistratzen den «Ahalordeen erregistro elektronikoko» datu pertsonalak babesteko: <https://www.euskadi.eus/informazio-klausulak/web01-sedepd/eu/gardentasuna/090800-cap1-eu.shtml>.

12. artikulua.– Argitaratzea eta informatzea.

Gutxienez ere, honako hauek argitaratuko dira Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko egoitza elektronikokoan (<https://www.euskadi.eus/egoitza-elektronikoa>):

a) Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko Zerbitzu Katalogoa, eta ahalordea emateko aukera duten izapide eta prozedura guztien zerrenda.

b) Ahalordeen erregistro elektronikoa erabiltzeko gida.

c) Borondatezko ahalordetzeak inskribatzeko, aldatzeko, uko egiteko eta ezerezteko ereduak.

II. KAPITULUA

BORONDATEZKO AHALORDETZEAK

1. ATALA

APUD ACTA EMANDAKO BORONDATEZKO AHALORDETZEAK

13. artikulua.– Apud acta emandako borondatezko ahalordetzeak ematea, eta haiek egiaztatzea.

1.– Agindu honen 6.3 artikuluan arautzen den aukeraz baliatzeko –borondatezko ahalordetzeak emateko aukeraz baliatzeko–, interesduna administrazio-egoitzan agertu behar da; era berean, interesdunak edozein bitarteko erabili ahal du, baldin eta bitarteko hori zuzenbidean baliozkoa bada eta modu fidagarrian erakusten badu ahalordetze hori existitzen dela.

Bide hauetakoren bat erabiliz egin beharko da apud acta borondatezko ahalordetzeak emateko agerraldia:

a) Ahalorde-emailearen agerraldi elektronikoa, horretarako onartutako identifikazio- eta sinadura-sistemetako bat erabilia.

Ahaldunak bide beretik onartu beharko du borondatezko ahalordetzea, eta ezin izango da onartu beste bide batetik onartzea, erregistroan inskribatzen denetik 20 egun balioduneko epean.

b) Ahalorde-emailea bera agertzea erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan, eta bere burua identifikatuta Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionario gaitu baten aurrean.

Ahalordedunak onartu egin beharko du borondatezko ahalordetzea, aukera hauetariko batez baliatuta: 1) modu berean, modu presentzialean, erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan bertaratuta; edo 2) agerraldi elektronikoa bidez, horretarako onartutako identifikazio- eta sinadura-sistemetako bat erabilia, erregistroan inskribatzen denetik 20 egun balioduneko epean.

2.– Legez edo erregelamenduz administrazio publikoekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatera behartuta dauden pertsonak eta erakundeak, nolana ere, artikuluko honen 1.a) apartatuan aurreikusitako bidea erabili beharko dute: elektronikoa.

3.– Harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatera behartuta ez dauden pertsona fisikoek soilik izango dute aukera artikuluko honen 1.b) apartatuan aurreikusitako bide presentziala erabiltzeko.

4.– Pertsona fisikoek zein juridikoek aukera izango dute apud acta borondatezko ahalordetzearen bidez ahalordetu eta ordezkatzeko.

5.– Izapide edo prozedura bat kudeatzen duen unitateak uste badu inskribatutako borondatezko ahalordetzeak ez duela behar besteko gaitasun juridikorik egin nahi den tramitea egiteko, interesdunari eskatu ahal izango dio informazio gehiago aurkezteko.

14. artikulua.– Apud acta emandako borondatezko ahalordetzeak inskribatzea. Inskribatzearen ondorioak eta irismena.

1.– Apud acta borondatezko ahalordetzeak automatikoki inskribatuko dira ahalordeen erregistro elektronikoa.

2.– Borondatezko ahalordetzeek ondorioak izango dituzte, baldin eta ahalordedunak onartzen baditu 13. artikulua 1. apartatuko a) eta b) letretan deskribatutako bitartekoren baten bidez.

3.– Ahalordeen erregistro elektronikoa inskribatzen diren ahalordetzeek ondorioak izango dituzte honako hauek:

a) 6.3.a) artikuluan jasotako ahalorde orokorrek: edozein administrazio-jarduketatan eta edozein administrazioaren aurrean.

b) 6.3.b) artikuluan jasotako edozein jarduketa egikaritzeko ahalordeek: Euskal Autonomia Erkegoko Administrazio Publikoko Zerbitzu Katalogoan sartutako prozeduren izapide guztietan.

c) 6.3.c) artikuluan jasotako ahalordeek: emandako ahalordeak espresuki aipatzen dituen izapide eta prozeduretan.

15. artikulua.– Apud acta emandako borondatezko ahalordetzeen inskripzioaren indarraldia.

1.– Erregistroan inskribatutako borondatezko ahalordetzeek, gehienez ere, bost urteko indarraldia izango dute inskribatzen diren datatik aurrera.

2.– Emandako borondatezko ahalordetzearen indarraldia amaitu baino lehen, ahalorde-emaileak edozein unetan luzatu ahal izango du ahalordea. Ahalordedunak, berriz, borondatezko ahalordetzearen indarraldia amaitu baino lehenago onartu beharko du luzapena.

3.– Ahalorde-emaileak egindako luzapenek, gehienez ere, bost urteko indarraldia izango dute luzapena inskribatzen den egunetik aurrera.

4.– Borondatezko ahalordetzeak luzatzeko eta ahalordedunek luzapen horiek onartzeko, agindu honen 13. artikulua 1. apartatuko a) eta b) letretan ahalordeak emateko aurreikusitako bide berberak erabiliko dira.

5.– Ahalordedunak ez badu luzapena onartzen erregistroan inskribatzen denetik 20 egun balioduneko epean, luzapena ofizioz ezereztuko da, eta agindu honen 17.1 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

16. artikulua.– Apud acta emandako borondatezko ahalordetzeak aldatzea.

1.– 6.3.a) artikuluko borondatezko ahalordetzeak ezin izango dira aldatu.

2.– Ahalordeen erregistro elektronikoa eman eta inskribatutako borondatezko ahalordetze elektronikoa, 6.3.b) artikuluan eta 6.3.c) artikuluan aipatzen direnak, berriz, aldatu ahal izango dira.

3.– 6.3.b) artikuluan eta 6.3.c) artikuluan aipatutako borondatezko ahalordetzeetan, honako hauek zabaldu edo murriztu ahal izango dira:

a) Jarduketak eta izapideak.

b) Ahalordean zehaztutako prozedurak.

c) Ahalordea egikaritzeko epea.

4.– Ahalorde-emaileak aldatu ahal izango ditu ahalordeen erregistro elektronikoa inskribatutako borondatezko ahalordetzeak, 6.3.b) eta 6.3.c) artikuluetakoak.

5.– Ahalordeduna, berriz, ezin izango da aldatu. Aldaketa hori formalizatzeko, baliorik gabe utzi beharko da lehendik dagoen ahalordetzea, eta borondatezko beste ahalordetze bat eman.

6.– Borondatezko ahalordetzeak aldatzeko eta aldaketak onartzeko, haiek emateko aurreikusitako bide berberak erabili ahal izango dira, 13. artikulua 1. apartatuko a) eta b) letretan araututakoaren arabera.

7.– Ahalordedunak ez badu onartzen borondatezko ahalordetzeen aldaketa erregistroan inskribatu eta 20 egun balioduneko epean, ofizioz ezereztuko da eskatutako ahalordetzearen aldaketa. Hala ere, horrek ez du ezeztatuko borondatezko ahalordetzea, zeina aldatzeko eskatu baita, eta indarrean jarraituko du aldaketarik gabe.

17. artikulua.– Apud acta emandako borondatezko ahalordetzearen inskripzioa ezerezte, errebokatzea eta hari uko egitea.

1.– Ahalordeen erregistro elektronikoan inskribatutako borondatezko ahalordetzeak ezereztu egingo dira, agindu honen 10. artikuluan jasotako kasuetako bat betetzen baldin bada.

2.– Emandako borondatezko ahalordetzearen balio-epea amaitu aurretik, ahalordetzea ematen duen pertsonak (ahalorde-emaileak) edozein unetan errebokatu ahal izango du borondatezko ahalordetzea, hura emateko aurreikusitako bide berberak erabiliz eta 13.1 artikuluan araututakoaren arabera.

Errebokatze horrek ondorioak izango ditu ahalordeen erregistro elektronikoan sartu eta berehala.

3.– Ahalordedunak edozein unetan aurkeztu ahal izango dio Administrazioari ahalordetzeari uko egiteko eskaera, eta ahalordea emateko aurreikusitako bide berberak erabili ahal izango ditu horretarako, 13. artikulua 1. apartatuaren a) eta b) letretan araututakoaren arabera, eta honako egokitzapen hauek eginda:

a) Ahalordedunak harreman elektronikoak izatera behartuta ez dagoen pertsona fisiko bat ordezkatzeko badu, erantzukizunpeko adierazpena egin beharko du nahitaez, non adieraziko baitu ahalorde-emaileari jakinarazi diola ahalordeari uko egin izana.

Uko egiteak automatikoki izango ditu ondorioak. Dena den, erantzukizunpeko adierazpena aurkeztea ezinbestekoa den kasuetan, uko egiteak ez du ondoriorik izango adierazpen hori sartu arte.

2. ATALA

AGIRI PUBLIKO BIDEZ EDO NOTARIOAK LEGITIMATUTAKO SINADURADUN AGIRI PRIBATU BIDEZ EMANDAKO BORONDATEZKO AHALORDETZEAK

18. artikulua.– Inskriba daitezkeen borondatezko ahalordetzeak, agiri publiko bidez edo notarioak legitimatutako sinaduradun agiri pribatu bidez emandakoak.

Ahalordeen erregistro elektronikoan, honako borondatezko ahalordetze hauek inskribatu ahal izango dira:

a) Agiri publiko bidez emandako ahalordetzeak, ahalordedunari ahalmena ematen diotenak Administrazioaren aurrean administrazio-jarduketak egiteko.

b) Agiri pribatu bidez emandako ahalordetzeak, baldin eta herritarrentzako arretaren eta zerbitzu digitalen arloko organo eskudunak onetsitako ahalorde-ereduaren arabekoak badira eta notarioak legitimatutako sinadura badute.

19. artikulua.– Agiri publiko bidez edo notarioak legitimatutako sinadura duen agiri pribatu bidez emandako borondatezko ahalordetzeak inskribatzea eta egiaztatzea.

1.– Agiri publiko bidez emandako borondatezko ahalordetzeen kasuan –18. artikuluko a) eta b) letretan jasota daude–, honako bide hauetakoren bat erabili beharko da inskripzioa egiteko:

a) Ahalorde-emailearen edo ahalordedunaren agerraldi elektronikoa, horretarako onartutako identifikazio- eta sinadura-sistemetako bat erabilita. Agiri hauek erantsi beharko dira:

1.a Agindu honen 18.a) artikuluan aipatutako borondatezko ahalordetzeen kasuan: ahalordetze-agiria, inskribatzeko eskatzen dena.

2.a Agindu honen 18.b) artikuluan aipatutako borondatezko ahalordetzeen kasuan: ahalorde-eredua, ahalorde-emailearen sinadura notarioak legitimatuta.

Ahalorde-emailearen agerraldia aurrez aurrekoa baldin bada, ezinbestekoa izango da ahalordedunak borondatezko ahalordetzea onartzea. Hura onartzeko epea, gehienez ere, 20 egun balioudunekoa izango da, ahalordetzea erregistroan inskribatzen denetik aurrera.

b) Ahalorde-emailea edo ahalordeduna aurrez aurre agertzea erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan, zeinetan bere burua identifikatu beharko baitu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko funtzionario gaituen aurrean. Agiri hauek erantsi beharko dira:

1.a Agindu honen 18.a) artikuluan aipatutako borondatezko ahalordetzeen kasuan: ahalordetze-agiria, inskribatzeko eskatzen dena.

2.a Agindu honen 18.b) artikuluan aipatutako borondatezko ahalordetzeen kasuan: ahalorde-eredua, ahalorde-emailearen sinadura notarioak legitimatuta.

Ahalorde-emailearen agerraldia aurrez aurrekoa denean, ezinbestekoa izango da ahalordedunak onartzea borondatezko ahalordetzea. Hura onartzeko epea, gehienez ere, 20 egun balioudunekoa izango da, ahalordetzea erregistroan inskribatzen denetik aurrera. Ahalordea onartzeko, bi bide hauetako bat erabili ahal izango du: a) erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan bertaratuta; edo, b) agerraldi elektronikoa, horretarako onartutako identifikazio- eta sinadura-sistemetako bat erabiliz.

2.– Legez edo erregelamenduz administrazio publikoekiko harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatera behartuta dauden pertsonak eta erakundeak, nolana ere, artikuluko honen a) apartatuan adierazitako bidea erabili beharko dute.

Harremanak bitarteko elektronikoen bidez izatera behartuta ez dauden pertsona fisikoek soilik daukate eskubidea agerraldi presentziala erabiltzeko, b) apartatuan aurreikusitako bidea baita.

3.– Ahalordedunak notarioak legitimatutako sinadura duen dokumentu publikoa edo pribatua aurkezten duenean, ahalordea askietsi dela ere jaso beharko da.

4.– Izapide edo prozedura bat kudeatzen duen unitateak uste badu inskribatutako ahalordetzeak ez duela behar besteko gaitasun juridikorik egin nahi den tramitea egiteko, interesdunari eskatu ahal izango dio informazio gehiago aurkezteko.

20. artikulua.– Agiri publiko bidez edo notarioak legitimatutako sinaduradun agiri pribatu bidez emandako borondatezko ahalordetzeen ondorioak eta irismena.

1.– Ahalordedunak inskribatzen badu ahalordea, ahalordetzeak ondorioak izango ditu behin herritarrentzako arretaren eta zerbitzu digitalen arloko organo eskudunak inskripzioa egiaztatu eta baieztatu eta gero. Herritarren arretaren eta zerbitzu digitalen organo eskudunak ahalordetzeak ukatuko ditu, edo, hala badagokio, errekerimenduak egingo ditu, atzemandako akatsak, asko jota, 10 egun baliouduneko epean zuzen daitezzen. Epe hori, berriz, inskripzioaren hurrengo egunetik hasita kontatuko da.

2.– Ahalorde-emaileak inskribatzen badu ahalordea, ezinbestekoa izango da ahalordunak onartzea, 19.1 artikuluan apartatueta deskribatutako bitartekoren bat erabiliz, eta ahalordetzeak onarpen horretatik aurrera izango ditu ondorioak.

3.– Ahalordeen erregistro elektronikoan inskribatutako ahalordetzeak ondorioak izango dituzte emandako ahalordean adierazitako izapide eta prozeduretan.

Ahalordea bada edozein jarduketa egiteko Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren aurrean, ahalordetzeak ondorioak izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren Zerbitzu Katalogoan sartutako prozeduretako izapide guztietan.

4.– Hala pertsona fisikoek nola pertsona juridikoek aukera izango dute agiri publiko bidez edo agiri pribatu bidez ahalordea emateko eta inor ordezkatzeko.

21. artikulua.– Agiri publiko bidez edo notarioak legitimatutako sinaduradun agiri pribatu bidez emandako borondatezko ahalordetzeen inskripzioen indarraldia.

1.– Erregistroan inskribatutako borondatezko ahalordetzeak, agiri publiko bidez edo notarioak legitimatutako sinaduradun agiri pribatu bidez emandakoak, bost urteko indarraldia izango dute gehienez ere, inskripzioa egiten den egunetik aurrera.

Inskripzioa egiteko unean agiri publiko bidez edo notarioak legitimatutako sinaduradun agiri pribatu bidez emandako borondatezko ahalordetzearen balio-epea laburragoa bada, azken epe hori gailenduko da.

2.– Ahalorde-emaileak edo ahalordedunak luzatu ahal izango du borondatezko ahalordetzearen indarraldia, baldin eta indarrean badago agiri publiko bidez edo notarioak legitimatutako sinaduradun agiri pribatu bidez emandako borondatezko ahalordetzea; hau da, edozein unetan luzatu ahalko du epea, betiere amaituta ez badago borondatezko ahalordetzearen indarraldia.

3.– Ahalorde-emaileak egindako luzapenek, gehienez ere, bost urteko indarraldia izango dute luzapena inskribatzen den egunetik aurrera. Nolanahi ere, agiri publiko bidez edo notarioak legitimatutako sinaduradun agiri pribatu bidez emandako ahalordearen balio-epeak beti izango du epe horrek baino indar handiagoa.

4.– Borondatezko ahalordetzeak luzatzeko, agindu honen 19.1 artikuluan ahalordeak emateko ezartzen diren bide berberak erabili beharko dira.

5.– 19.1 artikuluan jasotako borondatezko ahalordetzea bada, ahalordedunak onartu egin behar du ahalorde hori luzatzea. Ahalordedunak ez badu onartzen luza dadila ahalordea erregistroan inskribatzen denetik 20 egun balioduneko epean, luzapena ofizios ezereztuko da, eta agindu honen 23. artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

6.– Ahalorde-emailearen eta ahalordedunaren ardurak izango da eskatzea inskripzioa egokitu dadila, baldin eta aldatzen bada agiri publiko bidez edo notarioak legitimatutako sinaduradun agiri pribatu bidez emandako borondatezko ahalordetzearen balio-epea. Inskripzioa egokitu arren, inoiz ere ez da gaudituko bost urteko gehieneko indarraldia, zeina inskripzioaren datatik aurrera hasiko baita kontatzen.

22. artikulua.– Agiri publiko bidez edo notarioak legitimatutako sinaduradun agiri pribatu bidez emandako borondatezko ahalordetzea aldatzea.

Ez da onartuko ezer aldatzerik agiri publiko edo notario bidez legitimaturiko sinaduradun agiri pribatu bidez emandako borondatezko ahalordetzeetan, salbu eta agindu honen 21.6 artikuluan jasotako kasuan.

23. artikulua.– Agiri publiko bidez edo notarioak legitimatutako sinaduradun agiri pribatu bidez emandako borondatezko ahalordetzea ezerezte eta errebokatzea, eta hari uko egitea.

1.– Ahalordeen erregistro elektronikoa inskribatutako borondatezko ahalordetzeak, agiri publiko bidez edo notarioak legitimatutako sinaduradun agiri pribatu bidez emandakoak, ezereztu egingo dira, agindu honen 10. artikuluan jasotako kasuetako bat betetzen baldin bada.

2.– Hala ahalorde-emaileak nola ahalordedunak edozein unetan eskatu ahalko dute ezereztu dadila erregistratutako borondatezko ahalordetzearen inskripzioa, haren indarraldia amaitu aurretik.

Halaber, ahalorde-emailearen edo ahalordedunaren ardura izango da ezerezteko eskaera izapidetzea, baldin eta ahalorde-ematea amaitu bada errebokatu delako, uko egin zaiolako edo beste edozein inguruabar gertatu delako.

III. KAPITULUA

AHALORDEEN ERREGISTRO ELEKTRONIKOKO BESTE ORDEZKARITZA-FIGURA BATZUK

1. ATALA

LEGEZKO ORDEZKARIAK

24. artikulua.– Legezko ordezkariak inskribatzea.

1.– Ahalordeen erregistro elektronikoa, inskribatu ahal izango dira hala pertsona juridikoen legezko ordezkariak nola errentak esleitzeko araubideko erakundeen legezko ordezkariak.

2.– Elektronikoki formalizatuko dira legezko ordezkariak ahalordeen erregistro elektronikoa inskribatzeko tramite guztiak, hala nola inskribatzeko, onartzeko eta ezerezteko izapideak. Izapide horietako bat ere ezin izango da egin aurrez aurre erregistro-gaieran laguntzeko bulegoetan.

3.– Bi modu hauetako batean inskribatu ahal izango da legezko ordezkariak:

a) Pertsona juridikoak edo entitateak ahalordeen erregistro elektronikoa inskribatu ahal izango du nor diren legezko ordezkariak, horretarako onartutako identifikazio- eta sinadura-sistemetako bat erabiliz.

Legezko ordezkariak modu berean onartu beharko du ordezkariak. Hura onartzeko epea, gehenez ere, 20 egun baliiodunekoa izango da, erregistroan inskribatzen denetik aurrera.

b) Legezko ordezkaria legezko ordezkari gisa inskribatu ahal izango da egoitza elektronikoko ahalordeen erregistro elektronikoa, horretarako onartutako identifikazio- eta sinadura-sistemetako bat erabiliz.

4.– Bi kasuetan, eskabidearekin batera, justifikatu beharko da hura legezko ordezkaria dela.

25. artikulua.– Legezko ordezkariak ondorioak eta irismena.

1.– Ahalordeen erregistro elektronikoko legezko ordezkariak ondorioak izango dituzte behin herritarrentzako arretaren eta zerbitzu digitalen arloko organo eskudunak legezko ordezkariak egiaztatzen eta baieztatzen eta gero.

2.– Organo eskudunak, gehienez ere, 10 egun balioduneko epea izango du egiaztatze- eta baieztatze-lanak egiteko, inskripzio-eskaera aurkeztu eta hurrengo egunetik hasita.

3.– Ahalordeen erregistro elektronikoan inskribatutako legezko ordezkariak ondorioak izango dituzte Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko Zerbitzu Katalogoan sartzen diren prozedura guztietan.

4.– Legezko ordezkariak, bestalde, pertsona fisiko bati edo batzuei eman ahal izango zaizkie.

26. artikulua.– Legezko ordezkariak inskripzioen indarraldia.

1.– Zer indarraldi zehazten den legezko ordezkariak erregistroan inskribatzen direnean, ordezkariak indarraldi hori izango dute. Indarraldia, gehienez ere, bost urtekoa izango da, inskripzio-datatik kontatzen hasita; hala ere, legezko ordezkariaren balio-epea gailenduko da, azken hori laburragoa bada.

2.– Pertsona juridikoaren, erakundearen edo legezko ordezkariaren ardura izango da ahalordeen erregistro elektronikoko legezko ordezkariaren egokitzea balio-epeak izan ditzakeen aldaketetara.

3.– Legezko ordezkariaren balio-epea amaitu aurretik, pertsona juridikoak, erakundeak edo legezko ordezkariak edozein unetan luzatu ahal izango du indarraldia. Luzapenek, gehienez ere, bost urteko indarraldia izango dute, luzapenaren inskripzioa egiten den egunetik hasita. Hala ere, legezko ordezkariaren balio-epea laburragoa bada, azken hori gailenduko da.

4.– Pertsona juridikoak edo erakundeak eskatzen badu legezko ordezkariaren luzatzeko, legezko ordezkariak onartu beharko du ordezkariaren hori luzatzea. Luzapena onartzen ez bada erregistroan inskribatzen denetik 20 egun balioduneko epean, ofizioz ezereztuko da, eta agindu honen 27.1 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

27. artikulua.– Legezko ordezkariak ezerezteak.

1.– Ahalordeen erregistro elektronikoan inskribatutako legezko ordezkariak ezereztu egingo dira, agindu honen 10. artikuluan jasotako kasuetako bat betetzen baldin bada.

2.– Pertsona juridikoek, entitateek edo legezko ordezkariak edozein unetan eskatu ahal izango dute ezerez dadila erregistratutako legezko ordezkariaren inskripzioa. Halaber, beraien ardura izango da ezerezteko eskaera izapidetzea, baldin eta legezko ordezkariaren amaitu bada uko egin zaiolako, errebokatu delako edo beste edozein inguruabar gertatu delako.

Hala ere, pertsona juridikoak edo erakundeak behartuta egongo dira ordezkariak ezereztera, haiek eginkizunak betetzeari uzten dietenean.

2. ATALA

PERTSONA BAIMENDUAREN ORDEZKARITZAK

28. artikulua.– Baimen-emaileak eta baimenduak.

1.– Baimen-emaileak, pertsona juridikoek eta ekonomia-jarduerak egiten dituzten eta errentak esleitzeko araubidean dauden erakundeak baimena eman ahal izango diete pertsona fisikoei baimendu modura izapideak egin ditzaten pertsona juridikoaren edo erakundearen kontura.

2.– Baimendutako pertsonak lotura profesionala izan beharko dute pertsona juridikoarekin edo erakundearekin, edo zerikusia izan beharko dute haren jarduerarekin edo lanbidearekin.

29. artikulua.– Pertsona baimenduaren ordezkariak inskribatzea.

1.– Elektronikoki formalizatuko dira pertsona baimenduak ahalordeen erregistro elektronikoa inskribatzeko izapide guztiak, hala nola inskribatzeko, onartzeko eta ezerezteko tramiteak. Izapide horietako bat ere ezin izango da egin aurrez aurre erregistro-gaietan laguntzeko bulegoetan.

2.– Baimendutako pertsonak bide bera erabiliz onartu beharko du ordezkariak. Hura onartzeko epea, gehienez ere, 20 egun baliodunekoa izango da, erregistroan inskribatzen denetik aurrera.

30. artikulua.– Pertsona baimenduaren ordezkariak ondorioak eta irismena.

1.– Pertsona baimenduaren ordezkariak automatikoki inskribatuko dira ahalordeen erregistro elektronikoa.

2.– Pertsona baimenduaren ordezkariak ondorioak izango ditu pertsona horrek agerraldi elektronikoa bidez ordezkariak espresuki onartzen duen egunetik aurrera.

3.– Ahalordeen erregistro elektronikoa inskribatutako pertsona baimenduen ordezkariak soilik izango dituzte ondorioak emandako ordezkariak espresuki aipatzen diren izapide eta prozeduretan.

Ordezkariak, berriz, edozein jarduketa egiteko bada, ondorioak izango ditu Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko Zerbitzu Katalogoan sartutako prozeduren izapide guztietan.

4.– Jarduteko gaitasuna duten pertsona fisiko bat edo batzuk izan ahal izango dira pertsona baimenduak, baldin eta lotura profesionala badute pertsona juridikoarekin edo erakundearekin, edo zerikusia badute haren jarduerarekin edo lanbidearekin.

5.– Baimen-emailek beren gain hartuko dute baimentzen dituzten pertsonen egindako jarduketan ondoriozko erantzukizuna.

31. artikulua.– Pertsona baimenduaren ordezkariak inskribazioen indarraldia.

1.– Erregistroan inskribatutako pertsona baimenduaren ordezkariak zer indarraldi duten inskribazioa egiten denean, indarraldi hori izango dute. Indarraldia, gehienez ere, bost urtekoa izango da, inskribazioa egiten den egunetik aurrera.

2.– Pertsona juridikoak edo erakundeak edozein unetan luzatu ahal izango ditu pertsona baimenduaren ordezkariak, baina soilik balio-epea amaitu aurretik luzatuz gero. Pertsona juridikoak edo erakundeak emandako luzapenek, gehienez ere, bost urteko indarraldia izango dute, luzapena inskribatzen den datatik aurrera.

3.– Baimendutako pertsonak bide bera erabili beharko du luzapena onartzeko. Luzapena onartzen ez bada erregistroan inskribatzen denetik 20 egun balioduneko epean, ofizios ezereztuko da, eta agindu honen 33.1 artikuluan ezarritakoa aplikatuko da.

32. artikulua.– Pertsona baimenduaren ordezkariak aldatzea.

1.– Baimen-emaileak aldatu ahal izango du nori ematen dion baimena eta nor inskribatzen duen ahalordeen erregistro elektronikoa.

2.– Honako hauek handitu edo murriztu ahal izango dira:

a) Ordezkatzeko zehaztutako prozedurak.

b) Ordezkariak egikaritzeko epea.

3.– Baimenduak ez badu onartzen ordezkaritza aldatzea hura erregistroan inskribatu eta 20 egun balioduneko epean, ofizioz ezereztuko da eskatutako aldaketa. Hala ere, horren ondorioz ez da ezeztatuko ordezkaritza, aldatzeko eskatu dena, eta indarrean jarraituko du aldaketarik gabe.

33. artikulua.– Pertsona baimenduaren ordezkaritza ezerezte eta errebokatzea, eta haiei uko egitea.

1.– Ahalordeen erregistro elektronikoan inskribatutako pertsona baimenduen ordezkaritza ezeztu egingo dira, agindu honen 10. artikuluan jasotako kasuetako bat betetzen baldin bada.

2.– Baimen-emaileek edozein unetan eskatu ahal izango dute erreboka daitezela pertsona baimenduen erregistratutako ordezkaritza. Halaber, haien ardura izango da ezerezteko eskaera izapidetzea, baldin eta bien arteko lotura amaitzen bada uko egin zaiolako, errebokatu delako edo beste edozein inguruabar gertatu delako.

Hala ere, ordezkatzeko baimenduta daudenek beren eginkizunak betetzeari uzten dietenean, agindu-emaileak behartuta egongo dira ordezkaritza ezereztera.

3.– Pertsona baimenduek edozein unetan aurkeztu ahal izango dute uko egiteko eskaera. Uko-egite hori automatikoki jakinaraziko zaio baimena eman duen pertsona juridikoari edo erakundeari.

Baimendutako pertsonak inskripzioari uko egiten badio, horrek automatikoki izango ditu ondorioak.

3. ATALA

ENTITATE GAITUAK

34. artikulua.– Administrazioak hirugarrenak gaitzea.

1.– Administrazioak, oro har edo berariaz, pertsona fisiko edo juridiko baimenduak gaitu ahal izango ditu transakzio elektroniko jakin batzuk egin ditzaten interesdunen ordezkari gisa.

2.– Gaikuntza horretan, zehaztu beharko da zer baldintza eta betebeharretan konprometitzen diren era horretako ordezkaritza hartzen dutenak. Gaituz gero, ordezkaritza baliozkotzat joko da, non eta aplikatzekoa den araudiak ez duen besterik aurreikusten.

3.– Herritarrei arreta emateko eskumena duen administrazio-organoaren titularraren organo eskudunak emandako ebazpenaren edo harekin formalizatutako hitzarmenaren bidez formalizatuko da gaikuntza, arlo horretan eskumena duen administrazio-organoak kasuan kasuko administrazio-prozedurak ebazteko baimena eman eta eskaera justifikatua egin ondoren.

4.– Gaikuntzan, berriz, honako hau zehaztu beharko da:

a) nor gaitzen den.

b) zer baldintza bete behar den ordezkari gaitu izendatzeko.

c) zer prozedura eta izapide gaituko diren.

5.– Baimendutako funtzionarioek ahalordeen erregistro elektronikoan inskribatu beharko dute zer pertsona gaitzen den, eta erregistratuko dute zer izapide eta prozeduratan jardun dezaketen ordezkari gisa.

6.– Gaikuntzak, gehienez ere, lau urteko indarraldia izango du, eta ebazpenean azaltzen den datatik aurrera zenbatzen hasiko da indarraldi hori, edo hitzarmena formalizatzen den egunetik aurrera. Kasu bietan, indarraldia behin baino ezingo da luzatu, eta gehienez ere lau urterako.

7.– Agindu honen 10. artikuluan arautzen diren kasuetan ezereztuko dira gaikuntzak.

8.– Administrazioak edozein unetan eskatu ahal izango die gaitutako erakundeei ordezkaritza egiazta dezatela. Ordezkaritzak baliozkoak izateko, Administrazioak onartutako eredu normalizatuak erabili behar dira. Hala ere, interesduna beti agertu ahal izango da bere kabuz prozeduran.

9.– Pertsona gaituek, berriz, jarduketa bakoitzerako behar den ordezkaritza izan beharko dute. Ordezkaritza nahikorik ez badago, erantzukizunak eskatuko dira.

XEDAPEN INDARGABETZAILEA

Indargabetuta geratzen da hala Herrizaingo, Justizia eta Herri Administrazioiko sailburuaren 2012ko abenduaren 14ko Agindua, zeinaren bidez Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko Ordezkarien Erregistro Elektronikoa arautu baitzen eta Gaitutako Funtzionarioen Erregistroa sortu eta arautu baitzen, nola ahalordeen erregistroaren arloko beste edozein xedapen, baldin eta agindu honen aurkakoa bada.

AZKEN XEDAPENA.– Indarrean jartzea.

Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko azaroaren 14a.

Gobernantza Publiko eta Autogobernuko sailburua,
OLATZ GARAMENDI LANDA.